

ESKOLA KIROLA

Talde bateko kide direla sentitzea. Laguntzea. Lankidetzan jardutea. Taldea egitea. Kirolak, osasuna zaintzeaz gain, harremanak sortzen ditu. Gure gizartean hain garrantzitsuak diren balioak irakasten dizkie haurrei, hala nola integrazioa, elkartasuna eta errespetua.

ESKOLA KIROLAK kirolaren alderdi hezitzailea sustatu nahi du, haur bakoitzaren gaitasunetara egokitutako ikaskuntza prozesuaren bidez, alde batera utzita haurraren sexua, bizitokia, maila ekonomikoa...

Integratu eta batu egiten duen kirolean sinesten dugulako, pertsona guztiak berdin baloratzen dituen kirolean.

Gipuzkoan egiten den Eskola Kirola Foru Aldundiak eta Udaletxeak bultzatutako proiektua da . Honek onura asko dauzka gure seme alabengan:

- ▶ Adin hauetan kirol trebetasuna asko aldatzen da haurraren garapenaren arabera. Kirol emaitzak soilik hartzen baditugu kontuan eta heltzeko eta euren erritmora jarraitzeko denborarik ematen ez badiegu, kirol ohiturak hartzea zailagoa izango da. Gipuzkoako eskola kirolaren helburua denek hobetzea eta taldearen barruan ikastea da. Gainera, kirol ezberdinak praktikatzeak aukera ematen die euren trebetasunetara egokitzen diren modalitateak aurkitzeko
- ▶ Euskararekiko bizipen positiboak izateaz gain, eskola orduetatik kanpo euskaraz bizitzeko eta gozatzeko, eta euskal hiztun oso bilakatzeko aukera.
- ▶ Garrantzi gehiena heziketa alderdiari emateak ez du esan nahi fretoa jartzen zaionik aurrerantzean lehiaketetan parte hartuko duen ikasleari. Arro egon gaitezke Gipuzkoan dugun kirol federatu mailagatik, bai oinarrikoari bai goi mailakoari dagokionez. Eskola kiroleko gure eremuan hasitako kirolari eta taldeek onenen lehiaketetan parte hartzen dute.
- ▶ 2006an, aldaketa batzuk sartu ziren programan, Gipuzkoako eskola kiroleko agenteen arteko itun baten ondoren. Horrek ekarri zuen eskola kirolaren eskaintzen artean kirol jarduera osagarriak sartzea, klubetako kirol eskolak deitu ohi direnen bidez egiten direnak.

Jarduera osagarri horiek ezaugarri hauek dituzte:

- Programan parte hartzen duten umeei zuzentzen zaizkie soilik, kirol modalitate berean.
- Osagarriak dira, eta ez Gipuzkoako eskola kiroleko jardueren urteko egitarauan eskaintzen direnen ordezkioak.

Eskoletako egutegiak eta urteko jardueren egitarauko jarduerak elkar estaltzen ez dutela kontuan harturik programatzen dira.

Kontua da, beraz, Eskola Kirola programan parte hartzen duten hurrek, hala nahi izanez gero, jarduera gehigarri bat egin ahal izatea beren kirol gustukoenean.

► Bestalde, ikasleak bokazio argia edukiko balu kirol modalitate batean aritzeko, kirol modalitate desberdinak praktikatzea eta esperientzia desberdinak lortzea gomendio ona da kirolariaren garapenean. Izaera orokorreko gaitasunak eta trebetasunak ikasten joatean datza, askotariko egoera eta inguruneetan, apurka-apurka espezializatzen joateko. Orokorretik espezifikora, bere erritmoan.

Kirol medikuntzak ere ohartarazten du haurren garapenaren hasierako urteetan kirol modalitateetako teknika oso espezifikoen bidez egindako mugimendu errepikatuak aplikatzeko arriskuaren inguruan. Garapenaren hasierako faseetan dagoen gorputz bat ez da gai onartzeko oso mugimendu tekniko espezifikoak modu errepikatu batean egiteak artikulazioei sor diezaieken gehiegizko karga.

Gurasook adin horietan eragin handia dugu gure seme-alabengan. Familiaren laguntza izatea onuragarria izan daiteke hurrek gogoia kirol modalitate bakar batean goizegi jar ez dezaten, garapen hobea izan dezaten, eta askeagoak izan daitezen aukeratzeko eta aberastasun handiagoa izan dezaten kirol gaitasun eta trebetasunetan.

Hezkuntza gehiago eta kirol kultura gehiago izateak haurrak askeago egiten ditu.

INFORMAZIO GEHIAGO: <http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/mugi-hezi-irri>

ESKOLA KIROLA

Sentir que forman parte de un grupo. Cooperar. Colaborar. Hacer equipo. El deporte, además de cuidar su salud, crea vínculos. Enseña a los niños y las niñas valores tan importantes dentro de la sociedad como la integración, la solidaridad y el respeto.

ESKOLA KIROLA quiere fomentar este carácter educativo que tiene el deporte mediante un proceso de aprendizaje adaptado a sus capacidades. Independientemente de su sexo, lugar de residencia, nivel económico...

Porque creemos en un deporte que integra, que une y que valora a todos por igual.

El deporte escolar que se hace en Gipuzkoa es un proyecto fomentado por la Diputación y los Ayuntamientos. Tiene numerosos beneficios en nuestros hijos e hijas:

► La habilidad deportiva a estas edades varía mucho en función del grado de desarrollo de los niños. Si valoramos únicamente resultados deportivos y no les damos tiempo a madurar y a seguir su propio ritmo, podemos dificultar que adquieran hábito deportivo. En el deporte escolar de Gipuzkoa el objetivo es que todos mejoren y aprendan en el seno del grupo. Además, practicar distintos deportes les ayuda a poder encontrar deportes que se acomodan más a sus habilidades.

► Además de tener vivencias positivas hacia el euskera, disponer de oportunidades para vivir y disfrutar en euskera fuera del horario escolar, y convertirse en vascohablantes completos.

► Poner el acento en la vertiente educativa no es un freno para aquellos y aquellas que después se dedicarán a competir. Podemos estar orgullosos del nivel del deporte federado guipuzcoano, tanto de base como de alto nivel. Nuestros deportistas y equipos iniciados en nuestro modelo de deporte escolar compiten entre los y las mejores.

► En el año 2006 se introdujeron una serie de cambios en el programa, resultado de un pacto acordado entre los diferentes agentes del deporte escolar de Gipuzkoa y que supuso habilitar la posibilidad de incluir entre las ofertas de deporte escolar unas actividades deportivas complementarias, que se realizan a través de las comúnmente llamadas escuelas deportivas de

los clubes. Dichas actividades complementarias tendrían las siguientes características:

- Dirigidas únicamente a los niños/as participantes en el programa, en la misma modalidad deportiva.
- Complementarias y no sustitutivas de las ofertadas en el programa anual de actividades de deporte escolar de Gipuzkoa.
- Programadas de modo que los calendarios de las escuelas no se solapen con los de las actividades del programa anual de actividades.

Se trata, por lo tanto, de que aquellos niños/as que participan en el programa de deporte escolar puedan hacer, si así lo desean, una actividad adicional en su deporte favorito.

► Por otra parte, aunque el alumno/a tuviera una clarísima vocación de dedicarse a una modalidad deportiva, practicar distintas modalidades deportivas y obtener distintas experiencias es una buena recomendación en el desarrollo del deportista. Se trata de ir aprendiendo habilidades y destrezas con carácter general, en distintas situaciones y entornos, para ir poco a poco especializándose. De lo general a lo específico, a su ritmo.

La medicina deportiva alerta también sobre los riesgos de aplicar en edades iniciales de desarrollo de los niños movimientos repetidos a través de técnicas muy específicas de modalidades deportivas. Un cuerpo que está en fases iniciales de desarrollo, no es capaz de asumir la carga excesiva que puede suponer en las articulaciones la realización de movimientos técnicos muy específicos de manera repetida.

Padres y madres ejercemos a estas edades una importante influencia sobre nuestros hijos/as. Un apoyo familiar para que los niños no se centren demasiado pronto exclusivamente en una única modalidad deportiva puede ayudarles a un mejor desarrollo, a que sean más libres para elegir y a una mayor riqueza de habilidades y destrezas deportivas.

Tener más educación y más cultura deportiva hace a los niños/as más libres.

MAS INFORMACION: <http://www.gipuzkoakirolak.eus/es/yo-tb-juego>